

- **Zer berri:** Aztikerrek egindako etxebizitza azterketaren emaitzak
- **Entzutekuak:** Zenbait qurasok Haurreskolan plaza gehiago exijitu dituzte

soraluzeko
hamabostekaria **238.** alea
2011ko otsailaren 25ean

PIL-PILEAN



**“Krisixakin jentia hasi da
begixak zabaltzen”**

Soraluzeko Elkartzen

SORALUZeko URTARoEN ARGAZKI LEHIAKETA

NEGUA



Antolatzaileak:



Gaia: Negua adierazten duen Soroluzeko edozein argazki; natura, katea, baserria...

Epea: martxoak 31

Nora bidali: aldizkaria@pilpilean.com

Argazkien argitalpena: aukeratutako 12 argazkiak 2012ko herriko egutegian argitaratuko dira. Horrekin batera argazki guztiekin erakusketa antolatuko da kiroldegiko erakusketa gelan.

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soroluze. Tel. 943 75 17 89

MABE ILEPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarateak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soroluze
GIPUZKOA

Etxabe Harategia

Euskal
txabalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75



Lakuesta Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soroluze
T. 943 75 30 59



EGUZKIÑE ALDAZABAL



GORKA PRIETO

AITTAREN, ALABAREN ETA BANKUAREN IZENIAN, ARREN.

Egunon Gorka!
Leihotik zeru urdina ikusten dot gaur, igande goiz bateko lasaittasuna kalietan. Maria Callas daukat La Traviata indar guztiakin abesten, eta igandiak bapateko bizi poza hartzen dau. Lasai nago aspaldiko partez, atetik bapatian inor sartuko ez dala badakit eta, badakit fregaderia garbi darguala, badakit labadoria edozein momentutan jarri neikela, eta badakit edozein momentutan luak hartzen banau, lasai egingo dotela lo, inongo pixukiden zaratarik bare.

Bai, ikasle bizitzak badauzka bere gauza onak, baina sasoiak sasoiak... Oingo lasaittasunak baina badauka bere prezixua... Alokairuan bizi ahal izateko egunero interneten eta egunkarixetan iragarkiak irakurri, etxiak bixitatu, eta azkenian batek daki zenbagarrenian, bingo! Zentruan, leku lasaixan, bi logela, eta urte osorako kontratua. Aste honetan Soralezera jua, aitta besotik hartu, eta bankura jun ginan kontratua sinatzea. Urte bateko abala eskatzen zosten, hila-betebikofiantzia eta papel mordo bat betetzia, "solbentia" nintzala ziurtatzeko. Ba al da "solbenterik" gaur egungo situazio laboralian, kontratun bat izan ala ez, egun batetik bestera kalera botatzen zaittuan sistema maittagarri honetan? Ni erreza-tzen hasitta nao, "aita guriari", igande goizeko meza santu hau, "eskerrak zuri"... Eskerrak, basarrixan behixak jaitsi, fabrikari hamar ordu baino gehixago egin eta eguna bukatu aurretik ortuan hainbestelan egin bihar izanzeben "Jaeneri"... guk haren erdixa lan egitteko aukerarik izango bagendu... "bedeinkatuak gu"...

Goguan hartzeko

"Etxe beteak atsegin, etxe hutsak bihotz min".
Gotzon Garate, euskal atsotitza

Iepala Eguz!!!
Edarra panoramia presentatu dostazuna oin-guan Eguz!!! Nik be hain eguraldi ona ikusi eta zure ikuspuntu beltzari argittasun pixkat jartzia erabaki dot, alde positibuak agerraraztia alegia. Bankuek dana geure hobe biharrez egitten dabe.

Kontua zera da: hori hola dala konturatzia. Behin konturatu ezkerro, dana da poza eta alaittasuna! Ezkondu barrik baldin bazaoz, pisua erosi nahi ezkerro, to!!! bizitza osorako ezkonkidia, bankuakin ezkondu bihar izango dozu eta. Eta dagueaneko ezkondata bazaoz, to!!! pekatua, poligamia.

Gainera, ez daukazu zertaz kexatu! Goizaz eta lasaittasunaz gozatzeko aukeria behintzat badaukazu eta. Nik (etaniaguantatziagaittik monumentua merezi daben andriak) lurretik metro eskasera burua jasotzen daben bi tiranon menpe pasatzen dittugu orduak eta orduak. Pupu eta lore dala, sagarra mantzana dala, eta miska muska miki maus!!! Potruak be ule barik geratzen hasitta jatanaz!!!!

Astelehena noiz heldu zain egoten non, lanera jua eta bertan ezkutatu ahal izateko. Soldata urrixen trukel lan ordu asko sartu bihar dirala sarritan komentatzen dogun arren, bedeinkatuak askotan gehiegizko orduok... lana baina erraz aldatuko genduan potrojorran egotiagaittik!

Gainera, ze demonio, lana osasuna bada, egin deixela biharra jodiduta darenak!!!

“
**Ba al da
“solbenterik”
egun batetik
bestera kalera
botatzen
zaittuan sistema
maittagarri
honetan?**

Eguzkiñe Aldazabal

**Lana osasuna
bada, egin
deixela biharra
jodiduta
daguazena!!!**

Gorka Prieto



GUTUNAK

Zorraren amortizazioaz

Prentsan argitaraturiko idatzietan alkateak ondorengoa esaten du: herriko beharrei ezin diela aurre egin ez dagoelako dirurik. Arrazoia, aurreko legealdiko zorraren amortizazioa ordaintzen dabiltzala. Honen harira 2010eko aurrekontua erreferentziatzen hartuta, gure abstentzioari esker onartu den bakarra. Bertako kapitulu desberdinen portzentaien berri emango dugu: Pertsonala % 32,56; gastu arrunta % 36,59; inbertsioak % 13,30; dirulaguntzak % 9,01; zorraren amortizazioa % 7,38 eta zorraren interesak % 1,14. Azken bi kontzeptuak gehituz zorrak % 8,52 suposatzen du,

4.408.229 euroko aurrekontuari dagokionean. Ikus daitekeenez zorraren amortizazioa ez da handia. Alkateak erabilitako argumentuan oinarrituz, esan beharra daukagu 600.000 euroko kreditua eskatu dela 2009an futbol zelaia egiteko. Kreditu hau 2024an ordainduko du udalak, beraz etorkizuneko gobernuek aurre egin beharko diote zorraren amortizazioei. Adierazpen hauekin alkateak bere burua zurituta nahi du herritarren aurrean. Lau urtetan egingako kudeaketa kaskarra izkutatzea nahi du. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Peatonalizazioa

Kaixo, udalari galdetu nahi diot zein den Gabolats kalea peatonalizatzearen onura. Bertakoei kalteak besterik ez dizkigu sortzen, kotxearekin ezin baikara etxera gerturatu. Sarbide eskasa gelditzen zaigu, Erregetxetik eskailerak, igogailu berritik lekutan gelditzen da errepidea eta zubi txikian ez dago kotxea momentu baterako lagatzeko lekurik. Zer esan Kalebarren kalekoentzat, orain arte behintzat Plaza Zaharra bakarrik pasa beharra zeukaten, orain... Pertsona nagusi, ume edo kargaturik gabiltzanok, zer egin behar dugu? Zergatik ezin da orain arte bezala laga? Ez dut onurarik ikusten,

ez baita guztiz trafiko gabe gelditzen, bertako garajeetara kotxeak sartzen jarraituko dute eta. Pasoko kale bat besterik ez da, ez dago ezer. Arazoa, batzuetan etxepe azpian aparkaturik egoten diren kotxeak badira, isunak ipini eta listo! Bertan bizi garenon iritzia ez da galdetu eta kaleari erabilera ematen diogunekin kontaktu gabe hartu da erabakia. Honen bitartez kalteak sentitzen den jendea animatzen dut gure ezadostasuna udalari jakinarazten, kalea orain arte bezala laga dezaten.

Oihana Garitano

Patrimonia- lizatzea

Ez da lehenengo aldia, Aldazabal jn.k, EAJ taldearen izenean, IZARTU II barnean garatutako, Kalebarren, Santa Ana, Zubia, Etxaburueta eta Plaza Zaharreko, urbanizatze lanak gure egin ez ditzagun esaten digula. Lasai egon daiteke, ezker abertzaleak ez baitu inolako asmorik Aldazabal jn eta EAJ taldea hainbeste kezkatzen dituen ezer bere egiteko. Gure kudeaketan ardura nagusia, ahalik eta ondoen egitea da, erreferente bakarra interes orokorra izanez. Benetan kezkatzen gaituena Kalebarren, Santa Ana eta Zubiko egoera tamalgarria da. Lan horren hasierako aurrekontua 471.328€koa izan bazen ere, bukaeran, orotara, gastuaren exekuzioa 934.890€koa izan zen. EAJ taldeak biziki

gogorarazten digun moduan, lan haien zatirik handiena talde horrek babestuta, sustatuta eta exekututua izan zen. Garai hartan, Aldazabal jn, liberatua zegoen, IZARTUko lanak ikuskatu, koordinatu eta haien jarraipena egiteko. Ezker abertzaleak, ekintza hauen erantzule politiko moduan bere erantzukizuna onartu beharko lukeela uste du, eta bide batez, gainontzekoei azaldu zergatik gertatu diren gorago adierazitakoak. Etxaburueta - Plaza Zaharreko lanei dagokienez, hauek hasierako aurreikuspenen arabera exekutututa, prest gaude eskatzen dizkiguten azalpen guztiak emateko.

Ezker Abertzaleko hautetsiak

Pil-pilean

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Gaizka Azkarate
Beti futbola

Goizian goiz jaiki eta dudia sartzen jata mundua eguzkixan o futbolar inguruan diharduen bueltaka. Lehen zapaturu botatzen zebe partiduren bat telebistan eta bai, ondo egotzen jatekoa hartu eta ikusten jartzia. Baina oin, asteko egun guztietan dago futbola. Ematen dau beste kirolak ez dala existitzen eta ume danak nahi dabe futbolaran jokatzia, beste kiroltan pentsatu bare. Ni futbolaran urte askuan ibilitakua naiz, eta dana esan bihar da, ez naiz damutzen; baina egixa da beste kiroltatik urruntzen zaittuala. Nere kasuan adibidez, kanpora ikastera juatiak futbola lagatzia ekarri zoztan eta horrek beste ate batzuk zabaldu zoztan. Behin futbola lagata beste kirolen bat egitteko gogua neukan, gauza ezberdin bat probatzeko eta triatloian ibiltzen dan lagun batek esan zoztan zeba ez nintzan hasten berakin entrenatzen, probatzeko. Hau dana oin urtebete inguru pasatu zan eta duda bare esan neike erabaki ona hartu nebala. Guzti honekin esan nahi dotena da futbola ez dala dana eta ez dala bildurrik izan bihar kirol berriak probatzeko! Hortaz, gaztioi eta ez hain gaztioi, kirol eta jarduera berriak probatzeko gonbitia egitten dotsuet.

Haur Hezkuntzako azpiegiturak handitzeko proposamen bila

Haurreskola zerbitzua gero eta ezagunagoa da herrian. Gero eta guraso gehiago dira lan orduetan zerbitzua erabili nahi dutenak baina dagoeneko txiki geratu dira azpiegiturak. Gurasoak batu eta irtenbide bila dabilta.

Bileretan zenbat guraso biltzen zarie?

Momentuz 20. Ume txikixak ditugu gehixenok 0-1 urte bittartekuak eta haurdun darenak be parte hartzen dabe.

Zer da zuek aldarrikatzen dozuena?

Haurreskola zerbitzuan bihar dogun herritar danok plazak eukitzia.

Horretarako zein planteamendu egitten dozue?

Abenduan gure umien matrikulazinua egin eta plaza danak beteta zerela esan zozkuen. Horren ostian, guraso batzuk batu eta udaletxian plaza gehixago zabalztzia eskatu genduan. Udal Gobernuak gure eskarixa Aldundira eruan dau. Hilabete barru jakingo dogu eskarixa onartzen daben edo ez. Onartzen badabe, udalak Haurreskola haunditu biharko dau edo beste lokal berri bat topatu.

Herri mugimendua da zuena?

Herri mugimendua baino, biharra daukagunak mobidu bihar dogula uste dogu.



Bileretan dabilen ama taldea

Bileretako parte hartzia bultzatu bihar da orduan.

Bai noski! Arazua iraila heldu aurretik konpondu bihar dogu. Datoren bileria martxuan 2xan izango da. Kontzejupian elkartuko gara.

Bittartian zein ekimen aurreikusi dozue?

Momentuz benetan dagun biharra aztertu nahi dogu. Horretarako 2010. urtian jaxotako umien eta 2011. urtian haurdun daren amen zerrendak egitten dihardugu, gero banan-banan zerbitzuan erabilez galdetzeko.

Lortuko dozue azpiegiturak zabaltzia?

Udal Gobernu Taldiak badauki guretzat lehen mailako biharra dala hemen planteatutakua eta zer edo zer egittia lortuko dabe. Hori pentsatu nahi dogu behintzat!

“Haurreskolan bihar dogun danok plazak eukitzia nahi dogu.”

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Martxoaren 8ko aldarrikapenak mozorro artean

Udalak eta Emakumeen Batzardeak ekimen ugari antolatu dituzte emakumeen eskubideak aldarrikatzeko martxoaren 8tik apirilaren 12ra bitartean. Emakume langileen eguna aratusteetako martitzenean izango denez,



"2010 arrazoi martxan jarraitzeko" lemapean mural margoketa egin zen iaz.

aratusteetako bizipoza eta parekidetasunera heltzeko grina batu egin nahi izan dituzte. Horrela, martxoaren 8an 19:00etan kolorez beteko da Plaza Barrixa, pertsonen baitan izan daitezkeen mozorro ezberdinak aldarrikatuz.

Martxoak 8, 19:00etan Plaza Barrixan: elkarretaratzea "Bisexual, Heterosexual, Emakume, Transexual, Gizon, Lesbiana, Gay, Queer...", eta zuk zein mozorro janzten duzu?" lemapean.

Martxoak 11, 22:15ean Zinean: "80 egunean" pelikularen proiektzioa.

Martxoak 16, 18:30ean Zinean: "50 años de... , la mujer, cosa de hombres", Isabel Coixet-en film laburra eta kafe tertulia: "Emakume izatea, Gizon izatea, estereotipoak krisian", Ana Pérez psikologoarekin.

Martxoak 25, 17:30ean Zinean: 4-8 urte bitarteko umeentzat Idoia Sanchez ipuin kontalaria.

Apirilaren 1etik 12ra bitartean:

Erakusketa: "Emakume eta gizon homosexualak historian zehar" kiroldegiko erakusketa gelan.

UEUko udaberriko eskaintza argitaratu da

Udako Euskal Unibertsitateak udaberrirako ikastaro eskaintza kaleratu du. Ikastaroak Markeskua Jauregian egingo dira martxoaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean. Honako jakintza arloak jorratuko dira hiru hilabete hauetan: Moodle 2.0-ren oinarriko erabilera, Interneten baliabideak erabiltzen ikasi, Argazkigintza dokumentala, Coaching pertsonala, Estres psikofisikoa nola gaintitu, Haurtzarora oinarri sendoekin, Portaera arazoak kudeatzeko teknikak eta Basoaren sekretuak ikertuz. Soraluzeko Udalak matrikularen erdia ordainduko die izena ematen duten herritarrei. Ikastaroetan izena emateko, www.ueu.org helbidean egin behar da.



Iturria: UEU

Torturaren aurka elkarretaratze herrikoia

Otsailaren 13an herriko 60 lagun inguruk salatu zituzten torturak Plaza Barrixan egin zen elkarretaratzean. Bertan, 2010. urtean atxilotu dituzten eta torturak salatu dituzten 63 euskal herritarrei babesa erakutsi eta giza eskubideak errespetatu daitezela eskatu zuten, besteak beste.



Maiztegik ez du kartzela zapalduko

Auzitegi Gorenak Regina Maiztegi eta beste hiru lagunari espetxe zigorra murrizteko erabakia hartu du. Soralezetarrari sei urteko kartzela zigorra 2 urtean geratu zaio. Baina Maiztegi kartzelan 2 urte eta zortzi hilabete egin zituenez, litekeena da akusaziotik libre geratzea. Irudian, Regina lagunekin berri ona ospatzen.





SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Etxebizitza eskaera uste baino txikiagoa dela ondorioztatu du Aztikerrek

Jubilatuen Batzar Nagusia

Itxaropena Jubilatutako Etxeko Batzar Nagusia martxoaren 14an egingo da, arratsaldeko 17:00etan hasita. Iazko batzarreko akta hala badagokio onartu, urteko balantze ekonomikoa aztertu eta urteko bazkide mugimenduak landuko dituzte bertan.

Podologoaren bisita

Hamabostean behin, podologoaren kontsulta izaten dute elkarteek. Martxotik aurrera kontsulta izateko txandak zenbaki bidez banatuko dituzte, podologoak kontsulta pasatzen duen hurrengo egunean, goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean. Podologoaren hurrengo bisita martxoaren 14an izango da.

Txuri-urdirin elkartearen 8. urteurren festa

Martxoak 12 eta 13 bitartean egingo dute ospakizun jaia Txuri-urdirin elkarteek. Urteurren festa buruhandien kalejirarekin hasiko da eta jarraian umeentzako puzgarriak ere izango dira Plaza Zaharrean. Kaleko musikak girotuko du goiza eta salda eta txorizoa ez dira faltako. Goiza biribiltze aldera, "Txurrimurri eta morritoston zirkuan" kale antzerkiak gozatzeko aukera izango dute hurrezatzen direnek.



Errealak ikusteko autobusa

Martxoaren 13an, Errealak Malaga hartuko du Anoetan eta partida ikustera joateko autobusa antolatuko dute Txuri-urdirinekoek. Sarrerengatik Txoko tabernan galdetzeko aipatu dute elkarteek.

Eguaztenean Aztikerrek Udalak eskatutako etxebizitzaren gaineko azterketaren emaitzak aurkeztu zituen. Iazko urrian egindako inkestak herrian dagoen etxebizitza-premia eta etxebizitza hutsen egoera aztertzea zituen helburu. Inkestan herriko 451 familiak hartu dute parte, biztanleriaren %30a hain zuzen ere. Jasotako emaitzen arabera, Gipuzkoako datuekin konparatuta Soralezko etxebizitzaren eskaria txikiagoa dela ondorioztatu dute. 18 eta 40 urte bitarteko herritarren %5ak (64 herritarrek) etxebizitza eskuratzeko premia azaldu du. Bestetik, familien %25ak (36 familiak) familia osoa bizilekuz aldatzeko beharra adierazi du, egungoa baldintza txarrean dagoelako edo etxea txiki geratu zaielako. Nahiz eta alokairua begi onekin ikusi, etxea aldatu edo eskuratu nahi dutenen erdiak baino gehiagok nahiago du etxea jabetzan hartzea.

109 etxe huts

Egindako azterketaren arabera, herrian 109 etxebizitza maizterrik gabe daude. Horien artean, batzuk 2. etxebizitzak dira eta gehiengo (%70) hutsik dago. Bestalde, etxebizitza arazo larrietako bat dela diote inkestatuek, nahiz eta benetan premiadunak hiritarren %5a baino ez izan.

Udalaren lehen irakurketa

Alkatearen esanetan, datuek argi erakusten dute herrian etxebizitza berriak egiteko eskaerarik ez dagoela eta hutsik dauden etxeak nahikoa direla gaur eguneko eskaerari erantzuteko. Etxe jabeen informazioa ematea eta etxebizitza lortzeko premia dutenei eskaintzaren berri ematea izan daitezke etor-

kizuneko zeregin batzuk, jarraitu beharreko etxebizitza politika zehazte aldera.

Elkartzenek eraikitzeko beharrik ez dagoela esan du

Elkartearen ustez herrian dagoen eskaera asetzeko beste etxebizitza dago eta eskatu du etxebizitza gehiago ez eraikitzeko. Etxe hutsei irtenbide bat bilatzeko eskatu dio administrazioari eta etxeen jabeen alokairu sozial moduan merkatuzeko eta zilegi ikusten dute alokatu ezean jendeak okupatzea.

Azterketako ondorio nagusiak:

- Herriko 109 etxebizitza maizterrik gabe daude (%70a hutsik dago).
- 18 eta 40 urte bitarteko 64 herritarrek etxebizitza eskuratzeko beharra adierazi dute.
- 36 familiak bizilekuz aldatzeko beharra dute.



Aztikerreko ordezkaria eta Udal Gobernuako kideak aurkezpena egin ondoren

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

25. URTEURRENAN

ESKERRIK ASKO PLAINTZIATARREI
GUGEN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

“Krisixakin jentia hasi da begixak zabaltzen”

ELKARTZEN 2000. urtean sortu zen giza eskubideen alde. Gai sozioekonomikoak lantzen ditu batez ere eta herri askotan zabaldua dago, Soraluzen ere bai. Onintza Elgeta eta Loiola Maderarekin etxebizitza arazoaren eta diru banaketaren gainean jardun dugu.

Zer da Elkartzen?

Mugimendu zabala da. Euskal Herrira begira egiten dau lan, sozioekonomian ikuspegi kritiko bat lantzen, txostenak, legien azterketak... zabaltzen. Pobreziaren mugaren 1.077 euroko kalkulua be Elkartzenek etaratzen dau. Jaurlaritzak beste datu bajuago bat lortzen dau kalkulu desberdin baten bittartez. Elkartzen edo holako elkarte bat herri danak euki biharko leukie baina indar haundixena Bilbon eta Gasteizen dago.

Zela sortu zan Soraluzeko Elkartzen?

Elkartzen izan aurretiko kontuak dira. Deialdi bat egon zan etxebizitzaren gainean mobilizatzeko. Jende asko agertu zan eta 20 lagun inguru Maisuen Etxietan elkartu ginan. “Etxebizitza duin baten aldeko plataforma” izenakin hasi ginan. Gauza majuak egin ziran. Etxez-etxe, errolda datuak jaso, eskuorri batzuk banatu, gutako bat banakuakin ezkontzen zanaren parodia... Gero batzuk Elkartzen elkartera jo genduan eta herrixan talde bat sortzia erabaki.

“Etxebizitza politikia aldatzeko aukeria bada guala esan bihar jako jendiari.”

Pobreziaren abanikoa zabaldu egin da zuen esanetan...

“Pobre” esaten danan kontzeptua aldatzia nahi dogu guk. “Pobria” izateko ez daukazu kalia egon biharrik.

EAEn zela dago diru banaketia?

Autonomia erkidegoko diru guztiaren %44-a, biztanleriaren % 17-aren eskuetan dago. Hori gutxi balitz, 10.000 milioi euroko zerga-iruzurra dago EAEn. Aberatsak Ogasunari egiten dotsena. Egin bihar dana da aberastasun banaketa justuago bat. Pentsatu zenbat gauza egin leikezen diru horrekin. Aberastun maila horretan bizi diranak dira aldatzeko inungo interesik ez daukenak. Pentsa, EAEn hamar familixa dira diruaren jabe. Eurak eta euren enpresak, noski.

Askotan, gitxien daukanari botatzen jako kulpa...

Bai ba! Askotan jotzen dogu etorkineri errua botatzera, diru guztia eurek eruatzen dabela esaten dogu, lapur batzuk dirala, laguntzetaz aprobetxatzen dirala... Laguntza horrek danondako dare. Uste dogu aberatsak eta etxiak eraikitzen diharduenak, txintxuak dirala. Ustez “zu izorratzen dabilen etorkina” egunero kalia ikusten dozu baina urtetan zergen bitartez iruzurra egiten diharduanan aurpegirik ez dozu ikusiko.



Etxea izateko eta jateko eskubidea

Elkartzenek eskubide sozialak aldarrikatzeko egiten dituen ekimenen artean, etxebizitza eta jateko eskubidearen inguruan egindakoak daude. Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa egin zenean Elkartzenek etxebizitza "eskubidea zozketatzea" salatu zuen. Aurtengo gabonetan berriaz beharrik gehien dutenendako jantoki herrikoia antolatu zuten eta 100 bazkaltiar izan zituzten, jubilatuek eta etorkinak gehienak, gazterik bat ere ez. Horrekin batera jostailu truke azoka ere egin zuten eta 60 bat pertsonak hartu zuten parte. Etorkizunean ere antzeko ekimenak antolatzeke asmoa dute, behar dutenei laguntza eskaini eta soraluzetarren elkartasun eta kontzientzientzia kritikoa pizteko helburuarekin.

"Zerga iruzurra urtietan egiten ari jatzunari ez dotsazu aurpegixa ikusiko."

Jabetza pribatuak pisu haundixa dauka hemen.

Euskal Herrixan hain daukagu sartuta jabetza pribatua kontzeptua. Hemendik kanpora, Europan, etxebizitzaren %70 alokairura bideratzen dira, Alemanian, Ingalaterran. Argi dago jabetza pribatua atzian interesak darelako, merkatu oso bat dago hori bere horretan mantentzeko. Alegia, dirudunak.

Espanian ikusi ditudugu sindikatuak erreforma sinatzen...

Gobernua beti daukanari laguntzeko prest, bankuak, inmobiliariak. Langilia oso izorratuta dago. Baina krisixakin jendia hasi da begixak zabaltzen. Etxebizitzaren espekulazinuak eta bankuak izandako jarriari jentia hasi da konturatzen munduak zela funtzionatzen dabilen.

Zein da bidea gauzak aldatzeko? Aurrera begira ze asmo dauka Elkartzenek?

Asuntua da zeozer egin bihar dala. Egitasmuak proposatu, benetako beharrak identifikatu...

Gure asmua da, jantoki herrikoia sarri-sarri eskaini ahal izatia. Herriko merkatarixeri eskertu nahi dotsegu eurek egindako ahalegina. Jendebarrixa etortzeragobidatu nahi dogu etxebizitzaren gainekin laguntzera. Kalian jarraituko dogu informatzen eta laguntzen.

"Jantoki herrikoia maiztasun batez eskaini nahi dogu"



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

EHE-k plazaratu duen manifestuan, euskarak menpeko hizkuntza izaten jarraitzen duela dio. Egungo egoeran espainolaren eta frantsesaren nagusitasunarekin hizkuntza ezin daitekeela lehiatu, ez eta garatu.

Etorkizuneko hizkuntza nagusixa euskeria izatiakin ados?

ANE IBARZABAL

Ikaslia



Bai noski. Horretarako danok ipini bihar dogu gure aldetik. Baina hori ez da nahikua, politika be bada eta. Dana dala, ni unibertsaltasunan aldekoa naiz, hamen eta kanpuan, komunikatu ahal izatia da garrantzitsuena.

LUCIA DIEGUEZ

Ile-apaintzailia



Bai, azken finian Euskal Herrixan bizi gara eta hamengo hizkuntzia euskeria da. Hala eta be, ulertu bihar da kanpoko jendia be badaguala eta euskaldun zahar eta barrixak elkarri laguntzia bihar da.

IÑIGO EGUREN


Irakaslia



Nagusixa baino, normalduta egotia gustatuko jatan, euskeraz bizi ahal izatia. Bultzakada haundi-xa biharko da hortarako. Azpixon daguan bittartian ezingo da normaldu. Burujabe izatia da igual bihar doguna.

JOSE FRANCISCO OREGI

Langabetua



Bai, ados. Guk eta gobernuak, danok egin bihar-ko dogu lan. Ondiok leku eta giro askotan joten dogu erderara. Telebistan esaterako, katalanen moduan egin biharko genduke, eta ez euskaldunak izan eta erderaz erantzun.

Eman zure iritzia sarean



Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeitia Txurruka
 K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
 2010 / 2011

MATRIKULA LIBREA
 Otsailaren 11tik martxoaren 4ra

HIZKUNTZAK:
 ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian. Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo 943200618 telefonoan.

Jardineta, 3 • 20600 Eibar

Osatu da Korrika Batzordea

Korrikaren 17. edizioa apirilaren 13an (eguztana) Elgoibartik pasatu eta gero, arratsaldeko zortziak aldera iritsiko da Soraluzera. Egun horren prestaketa eta sortuko diren lanei aurre egiteko herriko zenbait eragilek eta norbanakok, Soraluzeko Korrika Batzordea sortu zuten atzo. Batzorde honek herrian Korrikari begirako ekimenak zein edukiak landuko ditu; Korrika Kulturala, Korrika Txikia zein Korrika bera antolatuko ditu. Batzordeko parte hartzea zabala da eta interesa dutenek AEK euskaltegira deitu dezakete (943 75 14 34).

Kulturaren Mahaia berriz martxan

Udaleko Kultura Sailak datorren egunean, martxoak 10, herriko Kulturaren Mahaia batuko du berriro. Hitzordua 19:00etan izango da, udaletxeko saio aretoan. Bilera honetara herriko kultur eragile ezberdinak gonbidatu dituzte. Bileran herriko kultur elkarteentzako lokalen inguruan jardungo dute gehienbat.

Martxoko Kultur Agenda**MARTXOAREN 11n, barixakua**

ZINE-EMANALDIA. "80 egunean" Gaueko 22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea

MARTXOAREN 16an, eguztana

ZINE FORUMA, kafearen usainean. Arratsaldeko 18:30ean, Zinean.

Ant: Udaleko Emakumearen Batzordea

MARTXOAREN 15etik 31ra

ARGAZKI-ERAKUSKETA : Beste Animalia Batzuk. Astegunetan 19:00-20:30 Asteburuetan 12-13:30, kiroldegiko erakusketa-aretoan.

Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa.

Soratustiak ekitaldiz beteta datoz

Aratusteak antolatzeko sortutako taldeak izen horixe eman die datozen jaiei: Soratustiak. Izena bezain egitarau herrikoia izango dute aurten. Musika eskolak,

Pil-pilean Euskara Elkartek, Kukumixo Aisialdi Taldeak, Atxolin Guraso Elkartek eta udalak osatu dute aurtengo egitaraua, pregoi eta guzti izango duena.

SORATUSTIAK 2011 EGITARAUA**MARTXOAK 5, ZAPATUA:**

UMEENTZAKO JOLASAK, kukumixokoen eskutik. **12:00etan** Plaza Zaharreen.

TRIKITILARIEN KALEJIRA 13:00etatik aurrera.

SALDA eta TXORIZOA Atxolin Guraso Elkarteen eskutik, **13:30ean** Plaza Zaharreen.

BURUHANDIEN kalejira herrian zehar, **13:30ean**.

Aratosteetako **PREGOIA 17:45ean**, udaletxeko balkoitik.

Aratosteetako **MOZORRO-DESFILEA** marras eta batukadarekin, **18:00etan** Zubi Nagusitik.

Aratosteetako **DANTZAK**, **19:00etan** Plaza Zaharreen.

DANTZALDIA "Erlaxi" taldearekin, **20:00etan** eta **iluntzeko 23:00etan** Plaza Zaharreen.

MARTXOAK 8, MARTITZENA:

Umeendako **MOZORRO PLAY-BACK lehiaketa**, **18:00etan** Frontoian.

Elkarretaratzea EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 19.00etan Plaza Berrian

DANTZALDIA "Trakets" taldearekin, **19:15ean** eta **22:30ean** Plaza Zaharreen.

TXOKOLATE-JANA arratsaldeko **19:15ean** Plaza Zaharreen.

ITXAROPENAN, **17:00etatik 19:00ra** luntxa eta ondoren dantzaldia Ermuko talde batekin.

Helduentzako **MOZORRO PLAY-BACK lehiaketa**, **23:00etan** Plaza Zaharreen.

(Play-back lehiaketako oinarriak eta informazio gehiago P.COM atarian)

**Brontzeko domina Andoainetik Soraluzera**

Abigail Montserrate pianojole gazteak parte hartu eta brontzeko domina jaso zuen hilaren 19an Andoainetik ospatu zen piano jaialdian. Musika eskolatik beste 5 ikasle eman zuten izena baina jende kopurua mugatua zela eta, ezin izan zuten parte hartu. Zorionak Abigaili eta bere irakasle den Nereari ere!



Iturria: Itziar Burunza



Disainua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06

T. 943 75 16 00

F. 943 75 24 61

Sorako "A" Erregionala igoera fasean da

Sorako Erregional taldeak Igoera Faseko lidergoa galdu zuen orain bi asteburu, Gure Txokoaren aurka berdindu ostean. Azken bi jardunaldietan, berriz, garaipena lortu eta sailkapeneko 3. postura igo da Bergarako taldearen atzetik, 16 puntu batuta. 11 jardunaldi dituzte aurretik, liga bukatzeko.



2010-2011 denboraldiko erregional taldea.

Sorako Erregional B taldeak, jubenilek eta kadeteek Kopa jokatzen dihardute. Azken jardunaldia 7. na izan da denentzat eta pozik egoteko emaitzak lortu dituzte. Erregional B taldeak 11 jardunaldi jokatu beharko ditu liga bukatu aurretik eta momentuz, sailkapeneko 7. postuan da, 6 punturekin. Kadeteek sailkapeneko taulan lehen 3 puntuak idatzi zituzten azken jardunaldian baina sailkapen orokorrean azken postuan daude Ikasberri taldearekin berdinduta, 3 punturekin. Sorako jubenilen taldea sailkapen orokorrean 3. da, 12 punturekin. Kadete zein jubenilek zazpi jardunaldi barru bukatuko dute liga

Gonzalez-Laskurain bikoteak sailkapenean goraka egitea lortu du



Eskuz binakako pelota txapelketako sailkapeneko hirugarren postua lortu dute Gonzalezek eta Laskurainek. Lehen lau partidak galdu ostean, bikotea indarberritu egin da eta azken lau partidak alde nabarmenez irabaztea lortu

dute. Oraindik hiru jardunalditan lehiatu beharko du Aspeko bikoteak baina horrela jarraituz gero, eta hirutik bi irabaziz gero, final aurreko ligaxka jokatzeke aukerak izango dituzte. Laskurainen lagunartek herritarrei Aritz eta bere bikotea animatzeko deia egin eta jokatuko diren partidetak joateko gonbitea luzatu nahi die.

Emakumeen Pala Txapelketan izen emateko epea zabalik dago

VI. urteurrena beteko du aurten herriko eta eskualdeko emakumeak batzen dituen Torturaren Aurkako Emakumeen Pala Txapelketak. Iaz 38 emakumek eman zuten izena eta guztira 18 bikote lehiatu ziren. Aurten ere parte hartze zabala espero dute antola-

tzaileek, azken urteetan izandako arrakastari jarraipena emate aldera. Arrano eta Gaztelupe tabernetan zabaldu dituzte izena emateko zerrendak eta interesa duten emakumeek martxoaren 4a baino lehen egin behar dute.

EMAITZAK

PELOTA

Eskuz Binakako IX. Txapelketa

Berasaluze VIII – Apraiz	18
Gonzalez – Laskurain	22
Olaizola I – Beloki	10
Gonzalez – Laskurain	22
Atxotegi – Mendizabal	22
Muguruza – Azkarate	17

Mungiako finalaurrekoa

Atxotegi – Altuna	22
Albarado – Ajuria	8

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Asoleus C.F.	7-0
Urki – Sora (Erreg. B.)	4-1
Sora (Jub.) – Urola K.E.	3-0
Kad. Atsedendia	
Anaitasuna – Sora (Erreg.)	1-2
Sora (Erreg. B.) – Ikasberri K.E.	3-3
Sora (Kad.) – Eibartarrak F.T.	2-1
Arizmendi K.E. Uda – Sora (Jub.)	0-3

AGENDA

PELOTA

Barixakua 25, 20:00etan Azkainen

Gonzalez – Laskurain
Saralegi – Beloki

Mungiako txapelketako finala Martxoaren 6an, domeka 11:30ean Mungian

Atxotegi – Altuna
Asier Beitia – Urberuaga

FUTBOLA

Zapatua 26, 16:30ean Ezozin

Sora (Erreg.) – Martutene

Domeka 27, 11:00etan Elbarrenan Danena K.E. – Sora (Erreg. B)

Zapatua 26, 11:00etan Ezozin Sora (Kad.) – Arizmendi K.E. Uda

Domeka 27, 13:30ean

Unben (behean) Eibartarrak – Sora (Jub.)

TXIRRINDULARITZA

Irteera: otsailak 27, 9:45etan Mandiola industrialdean.

Helmuga: 12:30ean San Andres auzoan.

Ibilbidea: Mandiola, Eskoriatza, Mendaro, Angiozar, Asentzio Goia, Bergara, San Andres.

ZORION AGURRAK



Ane Aizpurua
Otsailan 27xan 12 urte!
Mila kilo zorion eta muxuak
etxekuen partetik!



Zorionak Marga!
Otsailan 27xan urtiak
betetzen dozuz eta!
Muxuak danon partez!



Lore, Ion Ander eta Amaia
Otsailan 3an 7 urte! Otsailan 18xan 9 urte!
Otsailan 18xan 38 urte! Zorionak hirukote eta
muxu haundi asko etxeko danon partez!



Zorionak Nora eta Oier!
Otsailan 21ian urtebete!
Muxu potolo asko,
familixa eta lagunon partez!



Koldo Etxaniz
Otsailan 28xan 12 urte!
Zorionak Kaxkajo,
etxekuen partez!



Janire Muñoz
Martxuan 8xan 3 urte!
Zorionak maïttia, gurasuen
partez! Asko maïtte zaitugu!



Aitana eta Maialen
Martxuan 5ian 15 urte! eta otsailan 21ian
15 urte! Zorionak polittak! Ondo-ondo pasatu
eta patxo bana familixian partez!




Miren eta Ione
Otsailan 6xan 12 urte! eta otsailan 28xan 10 urte!
Zorionak fimilixian partez eta formalak izaten
jarraitu! Muxu haundi bana bixontzat!



Josune Sabán
Otsailan 24an 12 urte!
Zorionak eta muxu haundi
asko ama eta familixakuen
partetik!



Julen Gonzalez
Martxuan 3an 8 urte!
Zorionak mutil-haundi eta
muxu asko etxeko danon
partez!



Zorionak Unaitxooo!!
Biba zu!!! Zaindu asko-asko
eta milaka pilmuxu erraldoi,
danon partetik!



Oihan Larrañaga
Martxuan 4an 5 urte!!
Zorionak mutil-hundi!
Patxo pila eta ondo pasatu!!
Etxekuak!

jaiotakoak

ANDER AGIRREGOMEZKORTA CUENDE
MIKEL LAYZA ALBISUA



hildakoak

ANDER BOLUNBURU EGUREN
MARIA TERESA ALBERDI ATXOTEGI



LEHIAKETA

► Zein ageri da argazki honetan?


► **Saria:** Gasteizen Kukai, Oreka TX eta Amaren alabak taldeek eskainiko duten "Hostoak" ikus-kizunerako bi sarrera.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Mireia Lamariano

► **Amparo Fernandez,** Kakua dendakua da aurreko aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Elene Alberdi

ARATUSTE MARTITZENA IKASTOLAN

Oin 31 urte etaratako erretratua da. Aratustietako martitzenian mozorrotuta eta poz-pozik juaten ziran ume danak Ikastolara. Bazkalostian, disfrazaz jantzi eta danak kolorez betetako mozorruekin elkartzen ziran eskolara bidian. Heldutakuan, lelengo frontoian gelako lagunentzako talde argazkixia etaratzten zan eta jarraixan kalejiran urtetzen ziran ume danak, herrixa sasoi haretako pertsonai ezagunen mozorroz betetzera. Umoria eta bromak ez ziran falta izaten.

Argazkixan:

Goixan, ezkerretik eskumara: Irati Aldazabal, Elene Alberdi, Jesus Oregi, Nerea Morgado, Arantxa Laskurain, Raket Leonardo, Nagore Sanz, Nerea Rascon, Ainhoa Unamuno, Ane Gabilondo, Iñaki Andres, Amaia Ruiz, Nekane de los Rios, Ainitze Aranzeta, Gorka Soraluze, Ander Garitano eta Jagoba Zabala.

Behian, ezkerretik eskumara: Arantxi Rubio, Iñigo Bouzas, Iñigo Gabilondo, Asier Amutxastegi, Mikel Zubikarai, Amaia Agirre, Amaia Oregi, Amaia Albisua, Angel eta Francis Romero, Kaiet Casares eta Irene Aristi.



BENAN RODRIGUEZ

XI. URTEURRENA
2000KO OTSAILAREN 28AN HIL ZEN
GOIAN BEGO

“Atzo nire konpainian,
gaur nire oroimenean,
betirako nire bihotzean!”



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +43 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

*Aratustietan
argazkiak
ateratzeko
asmoa duzu?*

Bidali zure argazkiak aldizkaria@pilpilean.com edo plaentxia@pilpilean.com helbidera

Soratustiak

2011



(Play-back lehiaketako oinarriak
eta informazio gehiago P.COM atarian)

MARTXOAK 5, ZAPATUA:

UMEENTZAKO JOLASAK, kukumixokoen eskuifik, 12:00etan Plaza Zaharrean.

TRIKITILARIEN KALEJIRA 13:00etarik aurrera.

SALDA eta **TXORIZOA** Añxolin Guraso Elkarrearen eskuifik, 13:30ean Plaza Zaharrean.

BURUHANDIEN kalejira herrian zehar, 13:30ean.

Arajosleejako **PREGOIA** 17:45ean, udaletxeko balkoijik.

Arajosleejako **MOZORRO-DESFILEA** marras eta bajukadarekin, 18:00etan Zubi Nagusifik.

Arajosleejako **DANTZAK**, 19:00etan Plaza Zaharrean.

DANTZALDIA "Erlaxi" taldearekin, 20:00etan eta ilunetzeko 23:00etan Plaza Zaharrean.

MARTXOAK 8, MARTITZENA:

Umeendako **MOZORRO PLAY-BACK** lehiaketa, 18:00etan frontoian. Elkarrejarajzea Emakumeen Nazioarteko Eguna 19:00etan Plaza Berrian

DANTZALDIA "Trakets" taldearekin, 19:15ean eta 22:30ean Plaza Zaharrean.

TXOKOLATE-JANA arratsaldeko 19:15ean Plaza Zaharrean.

ITXAROPENAN, 17:00etarik 19:00ra luntxa eta ondoren dantzaldia Ermuko talde batekin.

Helduentzako **MOZORRO PLAY-BACK** lehiaketa, 23:00etan Plaza Zaharrean.

